

Noaia!!



Prezintatu egin dute
Santa Teresa etxea



Usurbil FT,
taldea egonkortzea helburu



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



munalurra 8, Usurbil

**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92

- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- BEILATOKI GUZTIETAN zerbitzuak
- ERRAUSKETA eta errauts-kutxak
- Ospitale zentru eta egoitzetan zerbitzuak
- ASEGURU konpaini GUZTIAK, deiguzuzuzenean denetaz arduratzen gara
- Lekualdaketak, eskelak, urteurrenak...
- Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia DOAN izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

I. Urkuzola ARROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea



Oria etorbidea 4, behea, LASARTE
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

DIGITAL+



**antenas
Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.

Orain Usurbilgo erdigunean
Ltd-ko kanal berri hauek
ikusteko aukera ...



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com



Albistea iruditan!!

Aginagarren arteko lehia, estua

Argazkia pasa den igandekoa da. Alde batean, txuriz jantzitakoak. Bestean, urdinez jantzitakoak. Egin beharreko lana, makala ez behintzat: lokotxak biltzea, sagar bilketa, hogeikolpeko ingude proba, txingekin itzuli bana, trontzan hiruna ebaki... Bazkalostean izanik, jendea isil antzean zegoen frontoian. Baina gazteak zein helduak lehian hasi zirenean, berotzen hasi zen frontoiko giroa. Batzuk eta besteak animatuz, arratsalde polita pasa zuten Aginagara hurbildu zirenek.



SERIO DEMONIO ARITU ZIREN LEHIAN AGINAGAN, IKUSKIZUN POLITA ESKAINIZ.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Aitor Eleta, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alasne Begiristain, Denis Elortza, Garazi Iturralde, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Maddi Galbete, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KEAK AZTERTZEN DIHARDU UDALAK **6. OR.**

ALDAKETA-GIROA SAN MARKON **7. OR.**

BERDINTASUN PLANA, ONARTUTA **8. OR.**

PEOI PLAZA BETETZEKO LAN DEIALDIA **9. OR.**

“PERSEPOLIS” FILMEA SUTEGIN **13. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**BENTA
 TABERNA**
 Oilasko erreak
 Ogitar-tekoak
 San Ignacio 1, behea
 USURBIL 943 36 93 05

TAXI
 607 92 87 70
 Angel (24h) USURBIL

ERRAZKIN
 Igetzerritza S.L.
 Tel.: 649 435 470
 Faxa: 943 372 679
 K./ Nagusia 47. Behea A.
 20170 USURBIL

**TXAPELDUN
 TABERNA**
 razioak
 ogitar-tekoak
 plater konbinatuak...
 Muna lurra 2, 943 11 82 53



UGAITZ AGIRRE

Gasteiztik galdegin dizut fikzioa ala errealitatea zaren

Goizean goiz autobusa hartu Donostian eta Gasteiz galdera abiatu naiz beharrak eskatzen didalako. Egunkaria erosi, kafesne bat hartu (esnatzeko edo) eta autobus txartela gidariari ematen diot autobusera igotzeko baimena eman diezadan. Emandakoan autobusera igo eta egunak zer dioen irakurtzen hasi naiz ordubeteko bidaia ez dadin hain aspergarria izan. [...] Azkenean Gamarrara iritsi gara. Magialdiako kartelak oraindik faroletatik zintzilik. Zinemaldiko lurrinak kresal usainarekin nahasten den hiria atzean utzi eta karten eta txanponen trikimailuen hauts magikoekin bustia dagoen hirian murgildu naizela dirudi.

Bi hirietan fikzioa errealitatearekin nahastu dela dirudi, egi idealizatua egunerokotasun absurdoarekin. Arteko irakasleak dio artea ere zerbait absurdoa dela, akaso errealitatea eta artea ez dira horren ezberdinak. Eta komunikabideetan maiz ageri dira fikzioak burua jan dien norbanako gizajoak.

Inauteriak ere fikziotzat har daitezke. Errealitateari uko egin eta fikzioan murgildu ohi gara. Mozorroaren azpian gordetzen dugu geure burua, edota bihotza. Auskalo zergatik. Lotsa ematen digulako akaso?

Mundua bera ere fikzio hutsa da. Historiaren haria

jarraritzea ipuin bat irakurtzea bezalakoxea da. Fikzioa azken batean. Fikzioa berez errealitatea ez dena da, baina sarritan dantzatzen dute tango bat biek elkarri lotuta. Elkarren beharra dutelako agian. Munduari argazki bat ateratzea nahikoa da elkartasun horren jabe egiteko. Begiratu mapa bat eta pentsa ezazu non dagoen errealitatea eta non fikzioa. Nik ez dut ezer esango, ez diot misterioa kendu nahi fikzioari, fikzioari egin diezaiokean putadarik handiena litzateke eta misterioa kentzea.

Eta zu? Zu errealitate ala fikzio zaitut? Mito ala egi? Galderak maiz egiten ditugu, baina erantzunak isilik ezkututzen dira eta galderen oihartzunarekin konformatu behar izaten dugu. Gustura? Ez dut uste. Beharbada baten bat bai. Auskalo. Dena ezin baita gure nahien arabera atera, ez dugu pribilegio horretaz gozaten. Baina ez genuke gozatu beharko? Gure nahien arabera jokatzearna alegia. Zuri egiten dizut galdera, zuk pentsatu beharko duzu erantzuna.

Eta Gasteiztik galdegin dizut errealitate ala fikzio zaren. Berriz ere. Beste behin. Baina nahiago duzu isilik egoten jarraitu, isilik egotera ohitu zaituztelako agian. Norberaren aukera da hitz egitearena edo ez egitearena. Espero dut zurea izatea egin duzun aukera.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Sendategiko arduradunek liburu bat osatu nahi dute eta herritarrek egindako argazkiak bildu nahi dituzte

Usurbilgo sendategian (lehen Urdaigako Berraiartzabitartearen oinetxea izandakoa) liburu bat osatu nahian dabilta, eta bertako istorioak jasotzen hasi dira. Besteak beste, argazkiak bildu nahi dituzte eta horretarako deialdia egin nahi dute herritarren artean.

Sendategiko edo Berraiartzabitarteko argazkirik baduzu etxean, gustura jasoko lituzkete sendategikoek.

Horretarako, sendategira deitu behar da, 943 36 11 24 telefono zenbakira.

Garai batean, 1940. urtetik aurrera, ez ziren argazki asko egiten baina jakin badakite ezkonberri askok sendategi inguruetan ateratzen zituztela argazkiak.

Baserriak urmaela, lorategi eta sarretarako arku dotoreak zituen. Argazki horietako bat baduzu, sendategiko arduradunek bereziki eskertuko lukete.



GARAI BATEAN ARKU HAU ZEGOEN SENDATEGIAN.

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: urriak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 11.

Urriaren 12an, Zubietan jai!

Urriaren 12an jai. Lanean diren guztiak oso barneratuta dute egun horretan ez dela lanik egiten. Baina ba al dakigu zergatik den egun hori jai? Hispanitatearen eguna ospatzen delako urriaren 12an. Badira egun horri bestelako kutsurik eman nahi diotenik. Zubietan, urriaren 12arekin, Euskal Jaia sustraitzen ari da urtez urte. Hau da Zubietan Lantzen-ek datorren asterako prestatu duen egitaraua.

Zubietako Euskal Jaia

10:00etan: Euskal arrazaren erakusketa: ahuntz azpigorriak, behi terreñak, euskal txerriak, pottokak, euskal oiloak...

11:00etan: Trikitilariak, hamaiketakoa.

12:00etan: Kantu poteoa.

14:00etan: Herri bazkaria Araetan (txarrelak urriaren 3a baino lehen erosi behar ziren Barazarren).

17:30ean: Arrabots-ekin erromeria.



IAZ BEZALA, KANTU-JIRAN IBILIKO DIRA EGUERDI PARTEAN (ARGAZKIA, ZUBIETA LANTZEN).

Harrera ona izaten ari da Usurbilgo Kantu Taldeak plazaratu duen liburuxka

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak ikasturteko martxari heldu dio. Baina aurten, liburuxka bat izango dute bidelagun. Usurbilgo Udalak, NOAUA! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak elkar-lanean kaleratu duten kantu-liburuxkak oso harrera ona izan du. Dagoeneko asko dira saldu diren aleak.

3 eurotan jarri da salgai eta NOAUA!-ko egoitzan, Lizardi eta Laurok liburu dendetan aurkituko duzue. Bertan, 189 abestiren letrak jaso dira.

Entseguak, asteartetan

Asteartean hasi ziren entseguak, Udarregi ikastolako musika gelan. 19:00etan elkartu ohi dira, asteartetan.



KANTU TALDEAK LIBURUXKA BAT PLAZARATU BERRI DU.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Udalera ailegatu zirenetik lantegietako kearen gaiari heldu eta jarraipena egin diotela adierazi du alkateak

Gainean gaude”. Hori da Udaletik Xabier Mikel Errekondok jakinarazi nahi diena herritarrei, eta modu berezian, lantegietako ke eta usain txarraz kexu, ingurumen eta osasun alorreko kezka agertu duten Atxegaldeko bizilagunei. 2007an Udalera ailegatu zirenetik gaur egunera arte gaiaren nondik norakoan berri eman dio NOAUA! aldizkariari.

“Udaletxera sartu eta berehalakoan gai honi heldu beharra aurkitzen gara”, adierazi du alkateak. Kexuak ugari baitziren duela hiru urterako eta ordutik, herritarren salaketak gaurdaino heldu dira. “Legegintzaldi hasieratik, Ucin-en kasuan, salaketen berri izan dugu, nagusiki Atxegalde inguruko biztanleengandik jasoak”, dio Xabier Mikel Errekondok.

Udala legegintzaldi hau hasi berritan, 2007ko uztailean bildu zen lehen aldiz, Eusko Jaurlaritzaren eta Ucin enpresako ordezkariekin. Bilera hartan, Ucin enpresak zenbait egokitzapen egiteko konpromisoa hartzen du eta uda hartan zenbait lan burutu zituzten.

HAINBAT AZTERKETA

“2008ko otsailean, Kimika Fakultateak aire kalitatea neurtu zuen baina ez zuen larrizko emaitzarik eman”

Urteotan ordea, egoerak bere horretan jarraitu du. Herritarrek argazki edota deien bidez kexak aurkeztu eta horien guztien jarraipena egin dutela dio alkateak. Udaletik ere ahaleginak egin direla dio Errekondok, baina Udalaren eragiteko aukerak mugatuak direla.

Emaitza larririk ez, orain arte

Aire kalitatea neurtu dute zenbait aldiz. “Atxegalden kokatzen dira furgonetak neurketak egiteko, baina ez dute emaitza berezirik ematen”, gogorarazi du Errekondok. Ikuskaritzak ere bideratu dituzte, Kimika Fakultatearena tarteko, baina emaitza kezagarririk ez da izan.



2007AN UCINEKO ESTRAKTOREAREN FILTROA ERRE EGIN ZEN. (IRUDIA: UDALTZAINGOA).

Eskerrak agiriko sinatzaileei

Alkateak gogorarazten duenez, gai honi heldu dio Udalak, baina “modu orokorra goan. Zorionez Usurbilen ingurumen eta osasunarekiko sentiberak gara”. Horregatik, eskerrak eman dizkie idatzia- ren sinatzaileei, agertu duten kezkatik, bereziki sinatzaileetako bati, Pedro Ibarrari. “Inoiz ez da berandu. Ongi etorriak, Udala hiru urtetik hona arazo honen kontra borrokatzen ari garenon artera”, adierazi du alkateak.

Udaletik alkateak ingurumena eta zaintzeko bermedun neurriak hartzeko beharra dagoela azpimarratzen du eta honenbestez, “minbizia sortzeko arriskua duten edozein elementu baztertzekoa, erraustegia adibidez”. Usurbiltzen Elkartea bezalako herri ekimenak bultzatu behar direla aipatzen du, Osasun Sailetik helarazi dieten mezua ahotan hartzearekin batera. Errekondoren esanetan, “ekonomikoki garatuak dauden herrialdeetan minbizia tasak igotzen ari dira”.

2009ko txostena

Kexu eta bileren artean, guraso talde batek 2009ko udaberrian herriko zenbait gazteren artean eman ziren minbizi kasuen inguruko txosten bat helarazi zion Udalari. Udala Osasun Sailekoekin harremanetan jarri zen berriz eta erantzun zieten, “aurreikusten dute, berezia dela, punta edo piko hori berezia dela, eta jarraipena egiteko konpromisoa hartzen dute”.

Horren haritik, Udalak eskatuak ditu 2005-09 urte arteko Usurbilgo minbizi kasuei buruzko datu orokorrak. Emaitzak ordea oraindik ez dira plazaratuko, batz bestea datu bilketa egin eta emaitzak ofizial egin arte, bizpahiru urte igaro ohi dira eta, Osasun Sailak Udalar berri emandakoaren arabera. “2009ko datuak 2011 edo 2012an lortuko dituzte formalizatzea, eta behin betiko edo ofizial egitea”, adierazi du Errekondok.

Informazio eske

Iraileko osoko bilkuran, herritarren kezka udalbatzan islatu zen. Gaiarekiko kezka agertu zuen Aralarretik Joxe Ramon Furundarenak eta baita informazioa eskatu ere.

Udalerriko mapa elektromagnetikoa aurkeztuko dute laster

Udalaren helburua, “irradiazio magnetikoak sor ditzaketen eremu edo gailuak neurtzea da”. Irradiazio mota honen barne, sartzen dira wi-fi edota irratien uhinak adibidez. Adin tarte eta gune espezifikoetara jarriko die ikerketak. Alkateak aurreratu duenez, “azterketa ia amaitua dago, eta emaitzak laster izango ditugu”. Emaitzak jaso eta jendartearen aurkezteko asmoa du Udalak.

Imanol Azpiroz: "Etxeko lanak ondo eginda goaz, maiatzean itzuliko gara"

Sanmarko Mankomunitateko zuzendaritza taldea aldatu aurretik, hiru urteotako ibilbidearen balorazioa egin zuen aurreko astean Imanol Azpirozek, Usurbilgo zinegotzi eta egun gutxi arte Sanmarkoko lehendakari orde izandakoak.

Hiru urteotako lanaren bidez, "iraultza ekarri dugu hondakinen kudeaketara", hala esan zuen Imanol Azpirozek, agur kutsua hartu zuen prentsaurrekoan. 2007an hondakinen %72a zabortegira garraitzen zen eta, honenbestez, birziklatze maila %28 ingurukoa zen. Hiru urteotan zenbaki horiek eta hondakinen kudeaketa eredu aldatzeko egindako lanaren berri eman zuen zubietarrak.

Besteak beste, birziklatze maila %80ra igo eta erreusa %20raino jaitea ahalbidetu duen atez ateko bilketa sistemak hiru udalerrietan-Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen- gauzatzen lagundu dutela oroitarazi zuen. "Ezin zen hondakinak nahastuta bildu, zulo batera bota eta kito. Birziklatzearen aldeko apustua egin behar zen", adierazi zuen Azpirozek.

Autokonpostajearen gorakada

Autokonpostajearen alde burutu duten apustua ere azpimarratu nahi izan zuen. 1.200 autokonpostagailu banatu dituzte urteotan, ikastaroak antolatzearekin batera. Beste 2.600 gailu eskatu zituzten, baina ez dituzte jaso. Azpirozek Aldundiaren laguntza falta salatu du: "Aldundiarena den Urnietako baserri batean alferrik galtzen ari dira".

Zabortegiaren itxiera

Inguruko herritarren artean, hainbeste ezinegon eta eragozpen sortu duen Sanmarkoko zabortegia ere itxi zutela oroitu zuen, "behin betiko itxiera proiektua Jaurlaritzan dago tramitazioan".

Garbigune gehiago

Aurrera begira, Garbigune proiektuak bideratzeko lanetan zebiltzan. Garberan zabaldukoarekin batera, Donostian



ATEZ ATEKO KUBOA ESKUETAN AGURTU NAHI IZAN ZUEN.

bigarren gune bat irekitzeko lehen urratsak ematen hasiak daudela gogorarazi zuen Imanol Azpirozek, baita, atez ateko bilketa martxan den udalerrietan ere beste proiektu bana. Usurbil, Hernani eta Oiartzunen beraz.

"Bota nahi gaituzte"

PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiak partaide izan dituen estrategia baten ondorioz, Azpirozen esanetan, "bota nahi gaituzte". Bota nahi izateko arrazoiak ere aipatu zituen, bat baino gehiago: "hiru urteotan lana txukun egin dugulako", baita bere esanetan gainerakoak deseroso sentiarazten dituztelako eta beldur direlako.

Adio baino, "gero arte"

Aurreko astean ezagutarazi zuen Greenpeace-k bestalde, errauste planta eraikitzeko Europako Banku Inbertsioak 2011ko otsailera arte atzeratu duela maillegua eman edo ez emateko erabakia. Errauste plantaren inguruan, etorkizuneko alternatiba dutela adierazi zuen Azpirozek, atez ateko bilketa. Eta halako esperientzia gehiago abiatuko direla ere gaineratu zuen. Adio baino, gero arte esanez amaitu zuen prentsaurrekoa: "Etxeko lanak ondo eginda goaz, maiatzean itzuliko gara".

Hondakinen %79,4 birziklatu da Usurbilen, 2010eko lehen seihilekoan

Sanmarko Mankomunitateak Saurtengo lehen seihilekoari dagozkion datu ofizialak kaleratu berri ditu. Informazio osoa, sanmarko.net web orrialdean kontsulta daiteke.

2010eko lehen seihilekoan batz bestez, Usurbilen hondakinen %79,4 birziklatu da. Iaz, atez ate bildutako hondakin kopuruak behera egin zuen, aurten berriz igo da, joan den otsailaz geroztik herriko industrialdeak ere atez ateko bilketa eremuaren barruan baitaude.

Oiartzunen eta Hernanin maiatzean abiatu zuten atez atekoa, nabaria da apiriletik ekainera dagoen tartea. Hernanin, apirilean hondakinen %36,8 birziklatzen zen, ekainean %83,1. Oiartzunen apirilean %37,5, eta bi hilabetera atez atekoarekin %82,7. Mankomunitateko gainerako udalerrien birziklatze maila, batz beste %30aren bueltan dabilta.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana onartu du udalbatzak, datozen lau urteotarako

2010-14 urterako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz, joan den irailaren 28an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Planak, aurrerantzian garatu beharreko lau estrategia biltzen ditu: genero-ikuspegia udal jarduera guztietan txertatzea; emakumeen ahalduntzea eta parte hartze publikoa sustatzea; bizitza pertsonala eta lana bateragarria izateko neurriak hartzea, eta emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzea; eta azkenik, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta horren biktimak diren emakumei eskainitako arreta hobetzea.



IRAILAREN 28AN BILDU ZEN UDALBATZA PLENOA.

Plana bozkatu aurretik, egitasmoari buruzko iritzia emateko tartea hartu zuten udal ordezkariak. Gobernu taldeak, Xabier Mikel Errekondoren esanetan, “dokumentua hasiera puntu ona da. Arazoaren muinera, ondo euskarrituta, ondo erantzun diezaiokegu, eskubide urraketei”.

URRIAREN 21EAN

“Planaren helburuak eta lan ildoak ezagutzeko aukera izango da Artzabalén”

Dokumentu irekia dela azpimarratu zuen, oinarrizko lan tresna gisa, denborarekin lehentasunak aldatu eta ekintza berriak planteatzea ahalbidetuko duena.

Zenbait ekintzen eraginkortasuna eta gauzatzeko zailtasunak ikusten dizkiote Alkarbide udal taldeak, diagnostikazioan zenbait alorrean informazio falta sumatzearekin batera. Aralarretik Joxe Ramon Furundarenak zioenez, “Udala serio hartzen ari da arlo hau eta gure babesa izango du”. Gobernu taldeko, Aralar eta EAJ-PNV-ko ordezkariak babestu zuten dokumentua. Alkarbide udal taldea abstenitu zen.

Jendaurreko aurkezpena

Udalbatzak onartutako plana publikoki aurkeztuko dute, urriaren 21ean, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Artzabalgo Areto Nagusian. Planaren helburuak eta lan ildoak ezagutzeko aukera izango da, baita galderak eta ekarpenak egiteko ere.

Bi urteko ibilbidea

Plana onartu aurretik, 2008an Elhuyar-ek gai honen inguruko diagnostikazio burutu zuen. Iaz, herritarrei zuzendutako parte hartze prozesuarekin plana diseinatu zen eta aurten, plangintza definitu eta Berdintasun Teknikari lanpostua sortu eta langilea kontratatu du Udalak. Clara Perez Wolfram berdintasun alorreko teknikariak uda aurretik zioenez, joan den astean udalbatzak onartu zuen plana, aurrera begira Udaletik bultzatuko diren ekimenak gauzatzeko oinarri edo lana-besa izango da.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Josue
Igeltseritza:

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea,7
Tif 36 21 64
USURBIL

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Geriatrico laguntzaile izateko ikastaroa antolatu du Udalak

Geriatrico laguntzaile ikastaroa antolatu du Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Ikastaroa amaitu ondoren, sektoreko enpresetan praktikak egiteko aukera izango da. Urriaren 13an amaituko da izena emateko epea.

Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza bati esker, geriatrico laguntzaile izateko ikastaro bat antolatu du. Izen-ematea urriaren 13ra arte egin ahal izango da Usurbilgo Udaletxean.

Atal ezberdinak izango ditu ikastarolak.

Hasierako prestakuntza, 9 ordu
Urriaren 18tik urriaren 20ra
Orduetgia: 9:00-12:00.

Geriatrico-laguntzaile ikastaroa, 220 ordu
Urriaren 21etik abenduaren 16ra
Orduetgia: 9:00-15:00.

Lanerako orientazioa, 20 ordu
Abenduaren 17tik abenduaren 23ra.

Ondoren, praktikak
Ikastaroa amaitu ondoren, sektoreko enpresetan praktikak egin ahal izango dira.



IKASTARAREN ONDOREN PRAKTIKAK EGITEKO AUKERA IZANGO DA.

Peoi plaza bat betetzeko lan-deialdia egin du Udalak

Usurbilgo peoi kualifikatuaren (hondeamakinaren gidari) lanpostua betetzeko deialdia egin da. Eskerak aurkezteko epea urriaren 13an amaituko da.

Lanpostua: peoi kualifikatua (hondeamakina gidaria).

Ihardunbidea: Oposaketa.

Ezaugarriak:

Bitarteko funtzionario izaera.

1.go hizkuntza eskakizuna.

- Eskola ziurtagiria izatea eta C gidatzeko baimena.

Froga praktikoa: Hondeamakina gidatu eta honekin lanen bat burutu.

Oinarriak eta eskabide orria: udal-tereko web orrian (www.usurbil.net) eta Udal Erregistro Orokorrean.

Eskerak aurkezteko epea: 2010eko urriaren 13a, eguerdiko 12:00ak bitartean.

Eguneko Zentroaren kudeaketa hitzarmena urtebetez luzatuko dute

Usurbilgo Udalak eta GSR Enpresak sinaturik duten hitzarmena beste urtebetez luzatzea babestu du udalbatzak, iraila amaieran burutu zuen ohiko osoko bilkuran. Luzapena azaroaren 17tik 2011ko azaroaren 16ra arte egongo da indarrean. Kontratuak, Eguneko Zentroaren erabilera eta kudeaketa ahalbideratuko du.

Haurrak euskaraz inskribatzeko arazoa aztertu zen udalbatzan

Astebete lehenago gaiari lotuta eskaintako prentsaurrekoan iragarri zuten moduan, iraileko osoko ohiko bilkuran, haur jaioberriak euskaraz inskribatzeko eskubidearen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak. Legeak aitortu arren, mekanismo faltagatik, udalerrri gehienetan seme-alaba jaioberrien gurasoek ezin baitute aipatu tramitea euskaraz egin. Testua, Usurbilgo Bake Epaitegiari eta Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazteko asmoa du Udalak, mozioak dioen moduan, "salatu urraketen aurrean bestelako neurriak berehala har ditzaten exijituz".

Mozioa, irailaren 14ko polizia operazioa salatzen

Joan den asteko atxiloketen aurretik, beste bederatzita lagun atxilotu zituzten. Polizia operazio hura salatzen mozioa onartu zuen udalbatzak, iraileko osoko ohiko bilkuran. Atxilotuei elkartasuna adierazi eta burututako mobilizazioekin bat egiten zuten testuak. Estatu espainiarraren jarrera onartezintzat jotzearekin batera, "udal honek ideia eta proiektu guztiak demokratikoki defendatzea eta gauzatzeko ezinbestekoa dela adierazi nahi du". Mozioak aldaketa politikoa eta

marko demokratikoa beharrezkotzat jotzen ditu eta gaineratzen duenez, "udal honek gatazkari konponbide demokratiko bat ematearen alde bere esku dagoen guztia egingo du".

Mozioa gobernu taldeak eta Aralarrek babestu zuten. Aurka bozkatu zuten EAJ-PNV eta Alkarbide udal taldeak.

Beste bi testu

Alkarbidek hain zuzen, osoko zuzenketa aurkeztu zuen. ETA-ren, Auzitegi

Nazionala bezalako epaitegi berezien eta Alderdien Legearen desagerpena eskatzen zuten. Eta EAJ-PNV-ko ordezkariak gaiari lotutako oharra irakurri zuten.

Atxilotuen oinarritzko eskubideak, tartean errugabetasun printzipioa bermatzea eskatzen zuten. Baita adierazpen politiko orok parte hartzeko duen eskubidea azpimarratu ere. Etorkizunari begira, erabakitze eskubidea aldarrikatu eta egungo prozesua atzeratzen egingo duten konpromisoak hartzea eskatzen zuten eragileei.

Santa Teresa etxeko gazteek zalantzan jartzen dute udal perituak egindako txostena

Maiatzetik hona, hainbat gazte izan dira Santa Teresa etxean bizitzen. Udaletxearena da eraikina, baina gazte hauek sartu zirenean, hutsik zegoen. Azken boladan, bost gazte eta ume txiki bat bizi ziren San Inazio auzoko etxe honetan. Irailaren 29an, Udalaren aginduz, hustu egin zuten etxea.

Etxea hustu eta bi egunetara, bi gazteren iritziak bildu genituen. Hernani aldekoak biak. Baina Usurbilen erroldatu eta etxea kultur-gune bihurtzeko asmo sendoa zutela adierazi ziguten.

Etxean sartu eta berehala, argiaren hartunea Iberdrolaren bidez egin zuten gazte hauek. Tratu zuzena izan zen gazteen eta Iberdrolaren artean. Ura bazen etxean, baina uraren gastua bere gain hartzeko asmoz, udaletxera jo zuten gazte hauek; eta herrian erroldatu nahian, bide batez. Orduan hasi ziren gorabeherak.

BESTELAKO IRITZI ESKE

Ettxeko habe bat oker zegoela baina ez zuen larrizat jo, gazte hauen ekimenez etxea ikusten egon zen beste peritu batek

Ikuskatze zehatzago bat

Handik bi egunetara, ordea, "etxeko goiko partean udal teknikariak zeudela jabetu ginen. Udal peritua, zerbitzuetako udal zinegotzia eta udaltzain burua. Etxearen ikuskapen bat egiten zeudela".

Udal perituaren txostenean oinarrituta hain zuzen, etxea hustutzeko agindua sinatu zuen alkateak. Gazte hauek adierazi digutenez, "perituak etxeari begiratu bota eta paper batean zirriborro bat egin zuen; eta argazki batzuk atera zituen, hori baino ez".



MAIATZETIK, HAINBAT GAZTE BIZI ZIREN SAN INAZIO ERROTONDA ONDOKO ETXE HONETAN.

Udal perituaren txostena ikusteko aukera izan zuten eta hor azaltzen denez, "etxea egoera txarrean egon daiteke". Udaletxeak, ordea, NOAUA!ri bidalitako prentsa-oharrean dioenez, "eraikina egoera txarrean dago. Hala frogatzen du udaleko hirigintza sailetik abuztuan egin zen azterketa teknikoak".

Gazteak ez daude ados honekin. Hasierako azterketa batean oinarritutako txostena dela diote. Eta birrintzeko egoeran dagoela ziurtatu baino

lehen, ikuskatze zehatzago bat egin beharko litzatekeela uste dute.

Gazte hauek beste peritu baten iritzia bildu zuten. Peritu honek etxea barrutik ikusi zuen eta ondo zegoela adierazi zien. Ettxeko habe (edo zutabe) bat oker zegoela baina ez zuen larrizat jo. Are gehiago, aldeko txosten bat egiteko prest zegoen.

Kontu honekin udaletxera joan zirenean, udal arduradunek adierazi zieten ez zutela udaletxetik kanpoko txostenik onartuko.

Etorkizunean, DYAren egoitza

Abuztua arte, ez zen arazorik izan Udala eta gazte hauen artean. Baina abuztuan, hainbat bilera egin zituzten udal arduradunekin. Etxea utzi behar zutela adierazi zitzaizkien gazte hauei, bilera horietako batean. Etxea egoera txarrean zela, berehala konpontzen hasiko zirela eta DYAkoentzat izan behar zuela etxe hori.

Gazteek Erregistroan eta Hirigintzan galdetu zuten baina inork ez omen zuen DYAko kontuaren berri argirik.

Hala ere, eraikin publiko bat bete-behar publiko batentzat izatea "egoki" ikusten dute gazte hauek. Are gehiago, "obrak hasteko unean, etxea uzteko prest" zeudela adierazi zieten gazte hauek udal arduradunei. Gazteek ziurtatzen dutenez, "Udala eta DYA ez dira akordio batera iritsi, ez dute hitzarmenik eginik eta ez dago hain argi Santa Teresa DYAren esku geratuko denik".

DYAkoa, etxetik botatzeko "aitzaria" izan dela diote gazte hauek.

Tentsioa izan zen hustuketan

Irailaren 22an, etxetik irtenarazteko udal dekretua helarazi zieten Santa Teresa etxeko gazteei. 24 ordu zituztela etxetik ospa egiteko. Nora joan ez zuten, eta ikuskapen tekniko zehatz bat egin arte ez zirela joango esan zieten udal arduradunei. Irailaren 29an, goizeko 9:00etan, hiruzpalau udaltzain eta udal brigadakoak azaldu ziren Santa Teresa etxean. 10 minututan kanpoan egon behar zutela agindua emanaz.

Ez zirela aterako adierazi zieten gazteek. Obrak hasi arte, ez zutela etxea uzteko asmorik. Kanpoan zituzten autoak gruarekin eramango zituztela mehatxatu zieten segidan.

Handik gutxira, atea botatzen hasi ziren, "indarkeriaz", gazte hauek NOAUA! aldizkariari adierazi diotenez.

Azkenean, atea botatzen hasi zirenean, nahikoa zela eta ezer gehiago txikitu baino, euren kabuz aterako zirela adierazi zioten gazteek udaltzain-buruari.

GAZTEEN HELBURUA

"Etxean bertan kultur-gune bat garatzeko asmoa genuen. Herriko taldeei irekia"

Gauzak etxetik atera eta beste tokiren batera eramateko ere, premia handia sartu zieten eta tentsioa izan zen goiz osoan, hustuketa hasi eta eguerdirako gauza denak atera zituzten arte.

Prezintatuta dago etxea

Orain, prezintua jarrita dago eta ezin du inork etxean sartu.

Santa Teresan bizi ziren hiru gazte Usurbilgo lagun baten etxean daude orain. Beste biak eta ume txikia, lan kontuengatik kanpoan aurkitzen ziren etxearen hustuketa eman zenean.



IRAILAREN 29AN HUSTU EGIN ZUTEN ETXEA. (ARGAZKIA, YOUTUBE-KO BIDEO BATETIK HARTUA).

Egoera bideratzeko saiakera

"Bertan bizimodua egitea erabaki zutenak arriskuan zeuden". Hori da Udalak izan duen beste argudio nagusia. Honen aurrean, gazte hauek kontratu moduko bat proposatu zioten Udalari. Abokatu batek aholkatuta, gazte hauek diote badela "legalki kontratu bat egiteko modua. Eta kontratu horren arabera, etxean eta

etxe inguruan gerta daitekeen edozein ezbeharraren ardura, etxean bizi direnen gain erortzen da".

Etxea kultur-gune bihurtzeko egitasmoa ere bazuten. "Etxean bertan kultur-gune bat garatzeko asmoa genuen. Herriko taldeei irekitako gunea. Edo baten batek bileraren bat egin nahi bazuen... Baratze ekologiko bat ere bagenuen jarria".

Udalaren esanetan, pertsona horiek arriskuan zeuden

Santa Teresako etxea hustu zuten Segunean, udal arduradunekin hitz egiten saiatu ginen. Prentsa-ohar bidez jakinarazi ziguten udal gobernuaren iritzia zein den:

"San Inazioko biribilgune ondoko eraikinaren hustuketa dela-eta, honakoa jakinarazi nahi du Usurbilgo Udalak.

- Eraikina egoera txarrean dago. Hala frogatzen du udaleko hirigintza sailetik abuztuan egin zen azterketa teknikoak, eta bertan esaten denaren arabera, bertan bizimodua egitea erabaki zutenak arriskuan

zeuden. Ez dakigu zer gertatu zitekeen han zeudenek bertan bizitzen jarraituz gero, baina ez genuen inolako segurtasun bermerik.

Hainbat bilera egin ditugu hura etxetat hartu zutenekin, eraikinaren baldintzak erakutsi eta hartuko genituen neurriak azaltzeko. Adostasunik lortu ezinda eta eraikinaren egoerak pertsona horien osotasuna arriskuan jartzen zuela ikusirik, Udalak hura husteko 24 orduko epea eman zien.

Behin hau hustuta, udaltzaingoak prezintatu egin du eraikina".

Lehen jai egunak igarota, San Praixkutako bigarren asteburuaren zain dira Aginagan

Giro onak lagunduta izan da mugimendua Aginagan joan den asteburuan. Oilasko biltzaileak, gau giro ederrak lagundutako kontzertuak, herri kirolak... Egunotan atsedean hartzen ari dira, asteburuan bueltan dira eta berriz San Praixkuak.

Indartsu hasi dituzte ohi bezala, San Praixkuak Aginagan. Kontzertu artean hasi ere. Larunbatean bereziki uda parteko gau giroa zegoen, kalean egotera eta etxeratzeko presarik ez izatera gonbidatzen zuena. Goizaldeko ordu txikiak arte iraun zuten Garabi eta Joxpa taldeek eskainitako kontzertuek. Jai giroak jaientarako zabaldu ohi dituzten tabernetan eta kalean jarraitu zuen gero. Bezperan ere Eliza zaharrean ospatutako kontzertuak izan ziren, gerora Oilasko Biltzaileen Egunarekin zubi lanak egin zituztenak.

Urmeneta-Elola nagusi

Urriaren 4an ospatu ohi den San Praixku eguna, aurten astelehenarekin egokitu da. Goizean meza nagusira joandakoak, eguerdian hamaiketako eder baten bueltan bildu ziren Aginaga sagardotegian. Arratsaldean desafio ukitu handia izan zuten herri kirolak jokatu ziren.

Kirol ekitaldiei errepasoa egiterakoan, ezin aipatu gabe utzi joan den urriaren 1ean ospatu zen Aginagako VIII. Pilota Txapelketako finala. Urmeneta-Elola bikoteak irabazi zuen, 22-14, Santxo-Perez bikotaren aurka jokaturako norgegiagoka.

Igandeko bazkarirako, izena eman behar da aldezturik

Egunotako etenaldiaren ondoren, ostiral honetan itzuliko dira San Praixkuak Aginagara. Asteburu bete ekitaldi izango da; Haurren Eguna, IV. Trainerila Txapelketa, herri antzerkia... Baita bertso-afari eta kantu bazkaria ere. Ostiralean, urriaren 8an ospatuko da bertso-afaria Eliza zaharrean. Bertara joan nahi duenak txartelak aldezturik



SAN PRAIXKU EGUNEAN, HAMAIKETAKOA ETA HERRI KIROLAK IZAN ZIREN.

erosi beharko ditu, Arrate Zahar Egoitzan edo Etxebeste tabernan. Helduen menuko tiketak 20 eurotan eskuratu ahal izango dira, haurren menukoak 15 eurotan.

Bestalde, urriaren 10ean, igandean,

kantu bazkaria ospatuko da, Josune Aranbururekin. Kantu bazkarira joateko ere aldezturik izena eman behar da: 680 347 768 (Leire) edo 686 820 329 (Ane). Izena emateko epea ostegun honetan, urriaren 7an itxiko da.

San Praixku 2010, azken txanpan

URRIAK 8 OSTIRALA

UMEEN EGUNA

10.00 Haurren jokoen hasiera.

13.00 Umeentzat bazkaria.

Bazkalostean, jokoen jarraipena eta sari banaketa.

16.30 Puzgarriak.

Jarraian, txokolate banaketa eta buruhandiak.

20.00 Triki-bertso poteoa.

21.00 Bertso afaria Eliza Zaharrean.

Ondoren, 3Gabe2 plaza taldearekin dantzaldia.

URRIAK 9 LARUNBATA

17.00 IV. Trainerila txapelketa.

Agüña, San Juan, Zarautz, Kaiku, Orío, Hondarribia, San Pedro eta sorpresa bat! Jarraian txarangaz alaiturik erriyotik frontoira. Bertan, herri antzerkia.

00.00 Abiba diskojaia. Jarraian Dj Larra Eliza Zaharrean.

URRIAK 10 IGANDEA

12.00 Bea eta Rodriekin ahots eta piano emanaldia Elizan.

14.00 Herri bazkaria. Erromerian, Laiotz.

“Persepolis”, Irango errealitateaz mintzo den pelikula

Film honen proiektioarekin amaituko da ostiral honetan III. Elkartasun Astea, Usurbilgo Elkartasun Taldeak antolatu duen zikloa. Gaueko 22:00etan hasiko da Irango film honen proiektzioa. Sarrera doan.

"Persepolis" pelikula Marjane Satrapiren komikietan oinarritzen da.

Iraneko kapitalean, Teheranen, jaio zen Marjane, eta bere bizitza ezin da ulertu bere herriaren testuinguru historiko eta politikoan ez bada. Honela, bere bizitza berak gogoratzen duen unetik (6 urte inguru zituenetik edo) kontatuz, Iraneko azken 30 urteen historia gogorra kontatzen du: diktadura, iraultza, errejimen integrista, Irakekiko gerra...



PERSEPOLIS PELIKULA MARJANE SATRAPIREN KOMIKI AUTOBIOGRAFIKOETAN DINARRITZEN DA.

Tailer ugari antolatu ditu Santuenea Kultur Elkarteak

Autoestima tailerra, yoga, kostura, pintura eta plastika haurrentzat... Horiek dira Santuenean ikasturte berri-rako prestatu dituzten tailerrak. Izena emateko epea ireki berri da.

Autoestima tailerrean, honako galderrei erantzunak bilatzen saiatuko dira:

-Nolakoa da nire familia? Zer da familia bat: gaur egungo familia mota desberdinak.

-Zein familia garaian gaude gu? Familiako garai desberdinak: nerabe bat etxean izatearen zailtasunak.

-Nola aurkitzen naiz ni guraso bezala? Zer gauza txiki nahiko nuke hobetu?

Zer egitetik hasi naiteke? Seme alabekin komunikazioa hobetzeko pauso txikiak finkatu eta gauzatzeko estrategiak landu.

Urriaren 7an eta 21ean, azaroaren 4an eta 18an eta abenduaren 2an egingo da ikastaroa, arratsaldeko ordutegian: 15:00/16:30.

Urrian hasteko

Yoga, kostura, haurrentzat pintura eta plastika tailerrak ere iragarri dituzte Santuenean. Urrian hasiko dira, beraz, informazio gehiago nahi izanez gero, 695 774 951 telefono zenbakira deitu.

1955ean jaiotakoekin kinto afaria

Kinto afaria antolatu dute 1955. Kurtean jaiotako herritarrentzat. Afaria urriaren 16an izango da, Antxeta jatetxean. Izena emateko honako bi telefono zenbaki hauetako batera deitu behar da: 630 938 297 (M^a Jesus, 14:00-16:00 artean deitu) edo 943 373 336 (Ana Karmen).

Euskotreneko langileek beste 3 lanuzte burutuko dituzte urrian

Euskotren enpresako langileek lan uzteak burutuko dituzte asteotan. Lehena, joan den astelehenean, urriaren 4an egin zuten. Aldaketarik ez bada, lau orduko lan uzteak iragarriak dituzte, beste hiru egunetan; urriaren 13an, 18an eta 25ean. Honako orduotan: goizez, 8:00-10:00 artean eta 18:00etik 20:00era. Langileek berri eman dutenez, okerrera egin duten lan-baldintzen aurka eta lanpostu guztiak mantentzearen aldeko protestak dira deituak dituztenak.

Esperientzia Eskolan, matrikulazioa zabalik

Ikasi eta gizartean aktiboki parte hartzeko gogoz dauden 50 urtetik gorako herritarrei zuzendutako Esperientzia Eskolan izena emateko epeak zabalik jarraitzen du. Ekimena abian jarriko dute laugarrenez Usurbilen, azaroaren 2tik aurrera. Gipuzkoako pertsona nagusiak biltzen dituen Mugabe Elkartearen formazio-ko eta gizarte parte hartzeko egitasmo bat da Esperientzia Eskola ekimena. Matiako teknikariek kudeatzen dute proiektua.

Izen ematea, zabalik


Klaseak asteartero eskainiko dituzte, bi orduz; 16:00-18:00 artean Artzabalen. Informazio gehiagorako Mugabe elkartearen telefono zenbaki honetara deitu: 943 224 146.

Urnietan omendua izan da Juantxo Gorostidi

Hogei urtez ziklo krosean marka ugari hautsi zituen Juantxo Gorostidi usurbildarrak. Pasa den astean, Urnietako Sanmiel jaietan omenaldi modukoa eskaini zioten. Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarraren eskutik, "Urnietar Prestu" ohorezko izendapena jaso zuen. Urnietarra da izatez baina ezkondu zenetik, Usurbilen bizi da.

65 urte bete bezperan, omenaldi jendetsua eskaini zioten. Emozioz beterik igo zen eskenatokira Juantxo Gorostidi. Anaiak ondoan zituela, gogotsu eta esker onak emanaz jaso zuen omenaldiko zapia eta koadroa.

Duela hiru urte hasi zen Iñistorra izeneko elkarte Urnietako herritarrak omen-tzen.



JUANTXO GOROSTIDI ZIKLO-KROSEAN NABARMENDU ZEN.

Gure Pakearen ospakizuna



Gure Pakeako bazkideen omenaldia jaso zuten aurreko igandean. Atxega jauregian egindako bazkarian, aurten 80 urte bete dituzten bazkideak oroigarri bana jaso zuten gainera.

Hau da uzta!



Joxe Torregarai astelehenean pasa zen NOAUA!tik. Ez zen esku hutsik etorri. Poltsa batean bi tomate eder ekarri zituen: bat, 1,480 kilokoa; bestea 1,420 kilokoa. Biak ere Gaztañaga etxeakoak. "Jendeak ez dezala esan kalean baino ez naizela ibiltzen, baratzean ere aritzen naizela!", nabarmendu zigun...

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Denboraldi berrian hobetuz, Usurbil Futbol Taldeak finkatzea du helburu

Duela urtebete ekindako bidetik aurrera jarraitzea da hurrengo hileotarako Usurbil FT-ren asmoa; aldaketak txertatu, bilgunea indartu eta egonkortzea. Oraingoan, talde batzuk mantentzeko aukerarik ez da izan, beste berri bat osatzeko bai ordea. Laster bestalde, bazkide-tza kanpaina berriari ekingo diote.

Usurbil Futbol Taldekoak lanerako gogoz eta ilusioz daude. Iazko helburuari jarraiki, aurtengoan ere zeresana ematen jarraitu nahi dute Usurbil FT-koek eta zuzendaritza taldekoen esanetan, "baita indarra hartzen joan, egonkortu eta jende gehiago etortzea lortzea ere".

Aurten ez da nesken talderik futboleant jardungo. "Borroka asko egin dugu, pena, baina ez da osatu", adierazi dute Usurbil FT-tik. Gipuzkoa mailan nesken taldeak osatzeko dauden zailtasunak Usurbilen ere islatu direla gaineratzen dute. Halere, zuzendaritzako kideen esanetan, "hurrengo denboraldi hasieran taldea berriz osatzen saiatuko gara".

Neskana ez da osatzeke gelditu den talde bakarra izango. Orain arte erregional mailan bi taldek jokatzen zuten, aurrerantzean batek bakarrik parte hartuko du txapelketetan. "Lehen taldea mailaz jaitsi zen. Alde batetik kirol aldetik ez genuen ikusten logika asko zuenik, bi talde izatearen funtzioa", adierazi dute.

40 gaztetxo Futbol Eskolan

Berri onak infantil mailan. "Iaz komeriak izan genituen infantilen taldea osatzeko. Aurten zorionez, bi talde ditugu; lehen eta bigarren urteko talde bana", adierazi dute Usurbil FT-tik.

Futbol Eskolari dagokionean, bere horretan mantenduko da, 40 gaztetxorekin. Hamabost jokalariz osatutako alebin mailako taldeak ere haiekin batera jokatzea nahi zuten. Hauek ere federatzea zen Usurbil FT-ren asmoa. Federazioko izen emate orriak eskuratu eta bete arren, "inork jakinarazi gabe, ezustea izan genuen kanpoan geratu ginenean". Gai honetan zeresana duten



AURTEN EZ DA NESKEN TALDEA OSATU.

Foru Aldundi, Erreal eta Federazioarekin bildu ziren. Inork ezer argirik ez zietela esan adierazi dute Usurbil FT-tik. Diotenez, "azkenean Aldundiko ordezkari batek esan zigun legeak 40 talde izatera mugatzen zutela eta hortik gora ezin zela izan." Orain kexua azaltzeko idatzi bat aurkezteko asmoa du, futbol taldeko zuzendaritzak. Gorabehera horiek zuzenean eragin dute hamabosteko talde horretan, ez baitira futboleant arituko.

Aurten, "berrehun baietz"

Usurbil FT-ko talde sozialak bazkide-tza kanpainari ekingo dio laster, eta baita gerora, bazkideei zuzendutako ekintzak antolatzeari ere. Iaz, ehun bat bazkide lortu zituzten, aurten, aipatu kopurua bikoiztu nahi dute. "Klubaren inguruan jende asko ibiltzen da jada. Ia berrehun lortzen ditugun", egin dute apustu zuzendaritzatik. Aurrerago emango dute kanpainaren eta bazkide izateak dituen abantailen berri.

Mikel Otaegi Galizan izan da, Euskadiko selekzioarekin

Pontevedrako Cangas de Morrazo (Galiza) udalerrian jokatu den Espainiako Triatloi Txapelketan Euskadiko Selekzioarekin parte hartu du Mikel Otaegi usurbildarrak. Irailean jokatu zen txapelketa etxeok irabazi zuten. Sailkapen orokorrean lehen postuan amaitu zuten galiziarrek, baina baita gizonezkoen eta emakumezkoen sailkapenetan ere. Euskadiko Selekzioa zazpigarren postuan sailkatu zen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik joandako zortzi emakumezko eta gizonezkoek emaitza desberdinak izan dituzte ordea. Emakumezkoak laugarren postuan sailkatu ziren, gizonezkoak bedez-



ratzigarrenean. Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeko kidea den Otaegik ordu bete pasatxoan amaitu zuen saioa. Proba gogorra gainditu behar zuten partaideek; 750 metro igerian, 20 km bizikleta gainean eta 5 km lasterka.

Agenda !!

Urriak 8 ostirala
22.00etan "Persepolis" pelikula
Sutegin. Sarrera, doan.

Urriak 12 asteartea
Zubietako Euskal Jaia, egun osoan
Zubietan.

Urriak 15 ostirala
20.00etan Salvatore Parrokian,
organo kontzertua.

Goardiako farmaziak

Urriak 7, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 8, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 9, larunbata
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 10, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 11, astelehena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Urriak 12, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 13, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 14, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 15, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 16, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 17, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
*Chucla farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

Usoa Zumetaren

estanzazioak Sutegin ikusgai

Zumeta, Koldobika Jauregi, Judas Arrieta, Dora Salazar, Blami, Goenaga, Basterretxea eta Hugh McCarthyren serigrafiak ikusteko aukera aparta dugu egunotan Sutegin. Usoa Zumeta da estanzazioen egilea. Urriaren 23ra arte, arratsaldean bisitatu ahal izango da.

Ostegun honetan, urriaren 7an irekitzekoa zen erakusketa. Urriaren 23ra

arte, puntako margolari askoren lanak ikus ahal izango ditugu Sutegin. Estanzazioaren teknika erabiliz, Usoa Zumetak bilduma polita osatu du. Erakusketa bisitatzeko, ordutegia hauex: astegunetan, 16:00etatik 19:00etara.

Larunbatetan, 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Jai egunetan: 11:30-14:00.



SUTEGIN TOPATUKO DUGUN SERIGRAFIAKOKO BAT HAUXE DA.

Datorren astean, organo kontzertua Salvatore parrokiari

Urriaren 15ean ostirala, arratsaldeko 20:00etan, organo kontzertua egingo da Salvatore parrokiari. Wladimir Matesic italiar organo-jolea arituko da Organoaren Lagunak taldeak antolatu duen kontzertuan. Salvatore parrokiaren, Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin egingo da organo kontzertua.



WLADIMIR MATESIC ITALIARRAK
ESKAINIKO DU KONTZERTUA.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plateer konbinatuak

TABERNA

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ETXEBIZITZA

- Exebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 60 metro karratu. 665 736 896 (Inaki).
- Pisu bat hartuko nuke alokairuan Usurbilen, bi hilabetez. Presazkoa da. 671 45 00 90.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, exebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-gela. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Apartamentu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berritua eta amueblatua. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
- Exebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako exebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landexxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldiararako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, porxena. 675702428 (gauez).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko exebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaillean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen exebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxek kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai Kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Txaramunto auzoan 15 metro karratuko garaje itxi bat alokatzen da 85 euro. Interesatuak deitu: 661 618 970.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- Munalurra auzoan jarraian dauden garajeak bi marra daukat salgai. Biak batera edo banaka. 678225241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- 2006ko Ford Transit Td/240s Kombi6 salgai. Ioseba 669 074 698.

- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauka, ondo zaindua, beti garajean egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- LH-n edota DBH-n klase partikularrik emateko prest egongo al zinake? Hala bada, pasa zaituz Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.
- Pertsona baten bila gabilta irailetik aurrera eguerditan haurra ikastolatik etxera ekarri eta bazkaria emateko. Interesatuak deitu 696429899.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsonak helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362
- Usurbilen urte asko daraman emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, interna moduan edo ordutegi luserako. Erreferentziak. 687348223 / 943364310.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratze lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsalde, baita jende nagusia edo gazteak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osoarako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo asteazken zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.

- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxeko-lanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Irailaren 30eko arratsaldean, Nintendo DS baten Rayo Mc Queenen funda gorria eta beltza galdu nuen Arizetako petrelean, barruan joku batzuk zituela. Norbaitek aurkitu badu 943 36 34 48 deitu eta eskertuko da.
- Motxila gorri bat galdu da barruan futboleko botak eta eskularruak zituela. Aurkitzen duenak mesedez deitu 656 702 957. Mila esker.
- Asteazkenean irailaren 22n arratsaldeko 18:00ak eta 20:00ak bitartean olympus markako argazki kamara bat galdu da polikiroldegi inguruan (aparkalekua eta nesken aldagela bitartean). Seme alabaren argazkiak ditut eta berreskuratu nahiko nituzke. 615756893. Ondo konpentsatuko da.
- Bugaboo markako umezantako kotxea daukat salgai. Kapazoa eta silla ditu eta burbuja eta zakutxoa ere bai. Interesatuak deitu 616586851 telefonora.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke. 617 802 088.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- Wii kontrolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kotsola ez da irekitzen eta horrela, garrantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko hir sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina.... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moral jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



Zorionak Gorka!
Irailaren 29an egin zenituen 2 urte.
Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez!



Zorionak Nora! Urriaren 10ean gure printzesak dagoeneko bi urte, muxu handi haundi bat Jon, Daddy ta amatxoren partez.



Zorionak Unai!
Urriaren 9an 5 urte egiten dituzu.
Zorionak eta muxu handi bat Eider eta gurasoen partez.



Zorionak Lide!
Jada 10 urte bete dituzu. Muxu asko familia eta batez ere Noraren partez.



Zorionak Jon! Urriaren 7an lau urte! Aupa Jon, ea noiz elkartzen garen berriz ere oporretan pistinaz gozatzeko. Muxu handi bat Enaitz eta Gorkaren partez!

HILDAKOAK

Jose Maria Odriozola Manterola
Urrian 3an hil zen, 50 urterekin





Lourdes Larranaga


FOTODEPILAZIOA:

Besapeak 30€tik
 Ezpaina 15€tik
 Ingleak 45€tik
 Hanka osoak 125€tik
 Hanka erdiak 80€tik

Tel. 943 362 887
 M. 619 060 685
 lourdes@esteticalourdes.es
 www.esteticalourdes.es



Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
 ☎ 943 363 298 • Faxa: 943 363 862

Sarrerren salmenta



SERBIKUTXA KUTXAZAINAK
 943 00 12 00
 www.kuxa.net



ANDOAINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



bastero
 KULTURGUNEA

AUKERAN dantza konpainia
"Gernika, mihise gaineko dantza"



URRIAK 8, Ostirala, 21:30h Auditorioan

Andoain Dantzan

VERDINI dantza taldea
"Dantzaria naiz"



URRIAK 15, Ostirala, 21:30h Auditorioan

Informazio gehiago: 943.303.540 www.andoain.org

OLARRONDON OSPAKIZUNAK

EZKONTZAK, BATAIOAK
JAUNARTZEAK, FESTAK
DESPEDIDAK...

ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE!!!
PREZIO BEREZIAK

OLARRONDOKO GAUAK

Ostiral eta larunbatetan JAI GIROA,
Dj Izania, gaueko 12tik aurrera.

OLARRONDOKO MENUA

- ASTE BUKAERAKOA 30€
edaria, ogia eta kafea barne

OLARRONDOKO KARTA

Aukera ederra!
Arrain, haragi eta itsaskietan
berezitasuna.



OLARRONDO
JATETXEA

Olarrondo Jatetxea
5 zenbakia. USURBIL
erreserbak: ☎ 943 360 376
www.olarrondo.es

olarrondojatetxea@gmail.com